



Usurbilgo Udala



## 2015EKO ABENDUAREN 23AN EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre (18:30ean bertaratu da)  
Irene Garcia Palacios  
Miren Josune Estella Arranz  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu (18:15ean bertaratu da)  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 18:10etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2015eko abenduaren 23an, arratsaldeko 18:10etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

### 1.- AURREKO AKTEN ONESPENA:

#### \* 2015/10/20KO EZOHICO ETA PREMIAZKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2015eko urriaren 20ko ezohiko eta premiazko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala



## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2015EKO AZAROAREN 16TIK ABENDUAREN 10ERA (2015/1059 – 2015/1139)**

Alkatetzak 2015eko azaroaren 16tik abenduaren 10era bitartean (2015/1059–2015/1139) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATZAILEA ERATZEA ETA OSATZEA.**

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek gai zerrendan sartzea berretsi dute aho batez.

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Adierazi du ekainean egindako udalbatzarrean erabaki zela legealdi honetako batzorde informatzaileak zeintzuk izango ziren, baina gerora ohartu direla dio badirela gai batzuk ez dakizkitenak zein batzordetan kokatu. Horiek direla dio batez ere udalaren funtzionamenduari edo antolakuntza orokorrari dagozkienak. Behin baino gehiagotan gertatu zaiela dio gairen bat diktaminatu gabe ekartzea, adibide bezala gaur plenora diktaminatu gabe ekarri den gai hau.

Beraz, Antolakuntza Batzordean beste batzordeetan kabidarik ez duten eta gehienbat antolakuntzarekin zerikusia duten gaiak landuko direla jakinarazi du.

Fermin Orue-Echevarriak batzordearen maiztasunaz galdetu du.

Alkateak erantzun dio printzipioz ohiko bilerak hilean behin egingo direla, hala ere, gaiak egokitzen eta sortzen diren heinean bilduko dela gaineratu du. Batzordearen osaketari buruzko azalpenak eman ditu.

18:15 direnean, Mirari Azurmendi zinegotzia bertaratu da.

Josune Urkolak galdetu du ea idazkaria nor izango den eta erantzun zaio udal idazkaria izango dela.

Alkatearen proposamena aztertu ondoren, batzarkideek aho batez honako erabakia hartu dute:



Usurbilgo Udala



“Udalak bere funtzionamendu egokia bideratze aldera, eta 2015eko ekainaren 30eko osoko bilkuran eraturako batzorde informatzaileetan berariaz txerta ezin litezkeen gaiak aztertu ahal izateko, honako proposamena egiten da:

**Lehena:** izaera Iraunkorra izango duen Antolaketa Batzorde informatzailea eratzea. Batzorde honen xedea udal antolaketari dagozkion gai orokorrak aztertzea, informatzea eta hala badagokio irizpenak bideratzea izango da.

**Bigarrena:** Osaketa. Batzorde Informatzailea 5 kidez osaturik egongo da eta talde politiko bakoitzak honako ordezkari izango du:

- EH Bildu: 3 kide-kopurua
- EAJ-PNV: kide 1
- PSE-EE (PSOE): kide 1
  
- Idazkaria: Udaleko idazkaria

**Hirugarrena:** Antolaketa Batzorde Informatzailea Usurbilgo Udal Arautegi Organikoko zazpigarren sekzioko 12, 13 eta 14 artikuluetan araututako funtzionamendura egokituko da. Batzordearen ohiko bilkurak hilean behin izango dira.

**Laugarrena:** 2016ko urtarrilaren 8a baino lehen Udal Talde bakoitzeko zein kide izango den partaide zehaztea eskatzea Talde bakoitzari dagokio, eta honen ordezkia. Aurkeztutako idatzia taldeko bozeramaleak sinatu behar du.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

#### **4.- 2016KO AURREKONTUEN HASIERAKO ONARPENA.**

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Aurrekontuen lanketarekin urrian hasi zirela adierazi du, urriaren 27ko plenoan zerga ordenantzak onartu ziren, hauetan erabaki zen aurreko zergak eta tasak bere horretan mantentzea, ñabardura batzuk izan ezik. Gerora sailez sail lanketa bat egin dela dio udal teknikariekin, ikusiz ze behar, ze egitasmo zeuden. Udal teknikarien parte hartze horrek ekarri duela dio, batetik, sarrerak ondo zehaztu eta finkatzea eta, bestetik, gastuen banaketa egoki bat egitea. Lanketa horren ostean, abenduaren 2ko batzordean lehenengo proposamena aurkeztu zen eta abenduaren 17ko ogasun batzordean aztertu ziren lehenengo dokumentuaren gainean PSE-EEK aurkeztu zituen proposamenak. Momentua baliatu du Fermin Orue-Echevarriari eskertzeko egindako ekarpenak. Aipaturako batzordean



Usurbilgo Udala



proposamen horiek ez zirela kontutan hartu adierazi du, asko ez zirelako aurrekontuetan zehatz mehatz jasotzeko modukoak. Egindako proposamen horiek asko oso egokiak eta kontuan hartzekoak iruditu zitzaizkiela, beraien gobernu programan kabida izan dezaketenak eta etorkizun batean jaso daitezkeenak.

Jarraitu du esanez abenduaren 17ko bilkuran batzordeak hasieraz onartu zuela proposamena eta bien bitartean abenduan herriko eragileekin bilera erronda bat egin zela. Hauetan herriko eragileek egindako ekarpen, proposamen etab.k jaso zirela esan du. Egiten duten balorazioa da bilera hauek oso bilera interesgarriak eta emankorrak izan direla. Kasu honetan ere proposamen horiei ere etorkizunean tokia egiten saiatuko direla adierazi du.

Aurrekontu hauen eduki eta izaerari dagokionez, pertsonengan eta herri bizian inbertitzeko aurrekontuak direla dio, eta horiei eman diela lehentasuna azpimarratu du, eta hau guztia gainera gure etorkizuna hipotekatuko ez duten aurrekontuak mahai gainean jarriz. Gaur egun dagoen egoera ekonomikoa dela-eta behartuta daudela dio nortasunez eta arduraz jokatzera, behartuta daudela ditugun aktiboak ondo zaintzera eta ditugun baliabideak ondo erabiltzera eta gestionatzera, beraz, eredu honek ez duela handikeriaz jokatu nahi, fokoa pertsonengan jarri nahi da eta hori guztia kudeaketa eraginkor baten bidez.

Edukiei begira lau zutabe nabarmendu ditu.

Batetik, zerbitzu publikoen sustapena. Usurbilgo Udalak herritarrei begira aktibo inportante bat duela esan du eta hori da giza kapitala. Udalak zerbitzu propioak dituela eta herriari eskaintzen zaizkion zerbitzu asko giza baliabide propioen bidez ematen direla adierazi du. Horregatik ulertzen dela dio gaur egun udalaren aurrekontuetan pertsonalaren kapituluak horrenbesteko pisua edukitzea.

Bigarrenik, ongizatea bermatzeari edo zaintzeari garrantzia ematen dioten aurrekontuak direla esan du. Ongizatea ulertuta, azken batean, herritarren giza baldintzak onak izatea. Hau ez dela dio kapitulu batean jasotzen baizik eta izaera transbertsala duela, aurrekontuak bere osotasunean ikusita kapituluz kapitulu jasotzen dela izaera hori gaineratu du. Arlo sozialean ez dela murrizketarik egiten adierazi du.

Hirugarrenik, udal funtzionamenduari garrantzi handia ematen diotela esan du. Herritarrei harrera eta arreta ona emango bazaie, beharrezkoa dela dio udal funtzionamendua eraginkorra izatea. Puntu honetan ahalegin berezia egin behar dela iruditzen zaie eta hori dela eta, aurrekontu hauetan hainbat puntu jasotzen direla esan du, esate baterako ekipo informatikoak erostea, udal ibilgailuak, artxiboa, inbentario bat egitea, webgunea berritzea.

Azkenik, inbertsioek ere garrantzi handia dutela dio baina, puntu honetan ere berriz errepikatu du beraientzat ze garrantzitsua den pertsonengan eta herri bizian inbertitzea. Askotan inbertsioa esaten denean badirudi hormigoitari edo eraikitzeari lotuta dagoela derrigorrez, baina herri honetan eragile sozial, kultural, kirol eta hainbat arlokoek duten garrantzia izugarrikoa da eta horretan inbertitu behar dutela uste dute,



Usurbilgo Udala



bultzada bat emanez beraien jardunean jarrai dezaten. Horregatik, 300.000 eurotik gora doazela dio talde horiei laguntzeko.

Bestelako inbertsioak ere badaudela dio, adibidez, Zumarte Musika Eskolaren birgaitzeari begirako proiektua, Plan Orokorraren erredakzioa, Irazu kalearen urbanizazioa, Erroizpeko urtegia, kiroldegiko aldagelen egokitzea...

Aurrekontu hauek gure ahalegin eta beharrei lotutakoak direla esan du eta guzti honekin espero dutena da izaera sozial hori indartzea.

Gainerako batzarkideei hitza eman die.

18:30 direnean Iñaki Ugarte zinegotzia bertaratu da.

Josune Urkolak hitza hartu du eta adierazi du emendakinak formalki ez dituztela aurkeztu epeak oso justuak izan direlako. Hala ere, gaineratu du batzordean luze eta zabal hitz egin zutela aurrekontuei buruz eta orain aurkeztu dituztenetan ez dutela aldaketarik ikusi.

Aurrekontu hauen aurka bozkatuko dutela adierazi du, beraien ustez kontinuitateak dira eta inbertsioetan ez dute gauza gehiegirik ikusten. Alkateak esan duen moduan pertsonengan inbertitzea oso ondo dago, hori dela eta pertsonalgora partida horregatik dela hain altua adierazi duela alkateak, baina aurrekontu hauek ez dutela pertsona batzuentzako bakarrik izan behar azaldu du. Beste mota bateko inbertsioak egingo balira, herri osoari eragingo lioketela nabarmendu du.

Bestalde, planifikazio gutxiko aurrekontuak direla iruditzen zaie.

Hau guztiagatik aurka bozkatuko dutela adierazi du.

Josune Urkolak azkenik gaineratu du txostenean ez dutela ikusi aurrekontu hauek Berdintasunaren Legea betetzen ote duten.

Kontu-hartzaileak erantzun dio ez dela egin. Komenigarria izango litzatekeela argi dagoela dio eta noiz edo noiz egin izan dela gaineratu du.

Fermin Orue-Echevarriak hitza hartu du eta adierazi du aurrekontuak aurkeztu ziren batzordera, abenduaren 2kora ezin izan zuela etorri eta 7an ezagutu ahal izan zituela Alaitzekin izandako bileran. Zuzenketa aurkezteko epea 10a izanik, epeak oso justuak izan direla eta ezin izan duela osoko zuzenketa aurkeztu adierazi du, horrela 7 zuzenketa partzial aurkeztu dituela gaineratu du. Zuzenketa hauek abenduaren 17ko batzordean aztertu ahal izan zirela eta udal gobernuak hauen aurka bozkatu zuela esan du. Hori dela eta, aurrekontu hauetan ez dela zuzenketa horietako bat bera ere jaso adierazi du. Ondorioz, aurrekontu hauen aurka bozkatuko duela esan du.



Usurbilgo Udala



Datorren urtean aurrekontuak aztertzeko denbora gehiago ematea eskatu du eta horrela adostasunetara heldu ahal izateko aukera izan dezaten.

Alaitz Aizpuruak Josune Urkolak esan duenari erantzunez, inbertsioetan gauza gutxi ikusten dutela eta pertsona batzuentzako bakarrik direla, beraiantzako pertsonalagoaren kapituluak erantzuten dio udal honek urte askotan garatu duen politika bati, hau da, zerbitzu publikoak sustatzeari eta zuzeneko kudeaketa egiteari. Esaten dutenean pertsonetan inbertituko duten aurrekontuak direla, argitu du ez dela pertsona konkretuentzat bakarrik, baizik eta herri honetan eragile asko eta zabalak daudela dio eta horien bitartez herritar multzo zabal batetara iristen direla. Hauetaz gain, bestelako inbertsio batzuk ere jasotzen dituztela aurrekontu hauek azpimarratu du eta zerrendatu egin ditu, hala nola, bide-gorrien sarea, hondakinen prebentzioetako lanak, Alperroburuko urbanizazioa, etab.

Ferminen epeei buruz adierazitakoaz aitortu du epeak izan direnak izan direla, beraiei ere gustatuko litzaikeela aurrerantzean tarte zabalagoak izatea eta, ahal baldin bada, egiten diren ekarpenak landuagoak izatea eta adostasunetara iritsi ahal izatea.

Egindako ekarpenei buruz adierazi du horietako batzuk dagoeneko aurrekontuen baitan jasota daudela eta beste asko oso interesgarriak iruditzen zaizkiela.

Alkateak aitortu du egia dela ez dela epe gehiegi utzi, aurtengoan gainera legealdi baten hasierak harrapatu dituztela eta seguraski horrek eragina izan duela.

Aurrekontuen lanketan lehenago hasi behar dela bai eta datorren urtean horrela izatea espero duela esan du.

Batzarkideek, Ogasun Batzordearen diktamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“2016 ekitaldirako Aurrekontu proposamena aurkeztu zuen Alkateak 2015eko abenduaren 2ko Ogasun Batzordean. Behin proiektua aurkezturik, ekarpenak egiteko aukera ireki zen talde politikoentzat.

PSE-k bere ekarpenak aurkeztu ditu, eta hauek eta Alkatearen behin betiko proposamena abenduaren 17ko Ogasun Batzordean aztertu eta diktaminatu dira.

Batzorde honetan, beharrezko azalpenak eman eta gero, bozketara jo da.

Lehendabizi, PSE Udal Taldeak aurkeztutako zuzenketa partzialak bozkatu dira, eta hau izan da emaitza:

Aldeko bozkek: Fermin Orue-Echevarria (PSE) eta Josune Urkola (EAJ)

Aurkako bozkek: Xabier Arregi, Alaitz Aizpuru eta Jone Urdanpilleta (EH Bildu)



Usurbilgo Udala



Ondoren, Alkatearen Aurrekontu Proposamenari buruzko bozketa gauzatu da:

Aldeko bozkak: Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta (EH Bildu)

Aurkako bozkak: Fermin Orue-Echevarria (PSE)

Abstentzioak: Josune Urkola (EAJ)

Beraz, Ogasun Batzordeak abenduaren 17an osaturiko diktamenean, gehiengoz, Udalbatza Osoari proposatutakoa kontutan hartuta, Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

### ERABAKIA

1.- 2016ko Alkatearen proposamenari PSE Udal Taldearen izenean aurkeztutako zuzenketa partzialak ez onartzea.

2.- Alkatearen behin betiko 2016ko Aurrekontu Proposamena behin-behingo onartzea, hurrengo laburpena duena, eta erantsirik doan Aurrekontua gauzatzeko Udal Araua ere biltzen duena:

### USURBILGO AURREKONTU OROKORRA 2016

#### SARRERAK

I Zerga zuzenak	2.859.200,00
II Zeharkako zergak	454.000,00
III Tasak eta besteak	2.034.145,00
IV Transferentzia arruntak	4.859.957,00
V Ondare sarrerak	21.500,00
<b>Sarrera arruntak:</b>	<b>10.228.802,00</b>
VI Inbertsioak besterenganatzea	476.327,00
VII Kapital transferentziak	0,00
IX Finantza pasiboak	0,00
<b>Kapital sarrerak:</b>	<b>476.327,00</b>

**SARRERAK GUZTIRA 10.705.129,00**

#### GASTUAK

I Langile gastuak	3.755.922,00
II Ondasun eta zerbitzu arruntak	4.721.675,28
III Interesak	30.000,00
IV Transferentzia arruntak	775.508,00
<b>Gastu arruntak:</b>	<b>9.283.105,28</b>



Usurbilgo Udala



<b>VI Inbertsio errealak</b>	990.422,10
<b>VII Kapital transferentziak</b>	91.601,61
<b>VIII Finantza aktiboen aldaketa</b>	0,00
<b>IX Finantza pasiboen aldaketa</b>	340.000,00
<b>Kapital gastuak:</b>	<b>1.422.023,72</b>
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>10.705.129,00</b>

3.- Behin hasieraz onartutako Aurrekontu Proiektua jendaurrean jartzea 15 egunez Iragarki Oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

4.- Jendaurreko epea iraganik, Aurrekontu Proiektua behin betirako onartua gelditzen denean, kapituluka laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta bere kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

## **5.- 2016KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONARPENA.**

Alkateak adierazi du Pertsonal batzordeak diktaminatuta datorrela.

Fermin Orue-Echevarriak galdetu du ea plantilla honekin sindikatuak ados dauden.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio hau errealitate baten argazkia dela, dauden lanpostuak daudela eta dagoen egoera isladatzen dutela.

Landu eta aztertu behar dena da hemendik aurrera zer. Azken urteetan interinitatearen portzentaia asko igo dela esan du eta sindikatuarekin landu beharko dela esan du OPEa onartu eta hor lehentasunak finkatzeko.





Usurbilgo Udala



Batzarkideek, Pertsonal Batzordearen diktamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“Alde batetik, Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. Artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 90.1 artikuluan jasotakoaren arabera, urtero Udal aurrekontuarekin batera Plantilla onartu behar da.

Bestetik, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta uztailearen 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan lanpostuen zerrenda arautzen du.

Horretaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 14-15. artikuluetan jasotzen du Aurrekontua onartzeko jarraitu beharreko prozedura.

Gaia 2015eko abenduaren 16ean egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Fermin Orue-Etxebarria Iturri.
- Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzari egindako proposamena kontutan hartuta, honek honako erabakiak hartu ditu gehiengoz:

## **ERABAKIA**

**LEHENENGO:** Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2016ko Lanpostuen Zerrendari eta Plantilla Organikoari hasierako onarpena ematea.

**BIGARREN:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekelarik.

**HIRUGARRENA:** Behin betikoz onartu ondoren, bi dokumentuak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. “

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisolli.



Usurbilgo Udala



Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

## **6.- GALDERA-ESKAERAK.**

Andoni Atxegak galdetu du ea posible den ezohiko bilkura batean galdera-eskaeren puntua sartzea.

Idazkariak erantzun dio orain arte ez dela ohiturarik egon galdera-eskaeren puntua ezohiko bilkuretan sartzeko. Legeak ohikoetan derrigortu egin duela adierazi du baina ezohikoetan hautazko moduan jartzen duela.

**Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:50ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**